



Elhuyar Hiztegiaren egileak, asteazkenean Usurbilen egindako aurkezpenean. ARGAZKIA: ELHUYAR

# Euskara-gaztelera hiztegiaren edizio berria aurkeztu du Elhuyar Fundazioak

LEHENENGOZ ARGITARATU ZENENKO  
HAMARGARREN URTEURRENEAN KALERATU DA

Publikazio berriak 88.000 sarrera, 20.000 azpisarrera,  
150.000 adiera eta 100.000 adibide biltzen ditu

IRUÑEA. Elhuyar Hiztegia (euskara-gaztelania/castellano-vasco) obraren hirugarren edizioa aurkeztu da aste honetan Elhuyar Fundazioaren egoitzan, lehenengoz argitaratu zeneko hamargarren urteurrena betetzen den honetan. Itziar Nogeraz Elhuyar Fundazioko zuzendari nagusiak, Antton Gurrutxaga hiztegiaren zuzendari teknikoetako batek eta Lurdes Ansa Elhuyar Edizioak saileko arduradunak eman zituzten hiztegi berriaren xehetasunak. Itziar Nogerazek adierazi zuenez, "Elhuyar Fundazioaren helburuetako bat euskara garatzeko eta normalizatzeko hizkuntza-baliabide, tresna eta zerbitzuak sortzea eta eskaintzea da" eta "helburu horri tinko eutsiz, urteak daramatzagu hiztegituzan

lan egiten, eta, ditugun hiztegiak eguneratzeaz gain, hiztegi berriak egitea dugu helburu". Horrenbestez, datorren urtean Elhuyarrek ingelese-euskara hiztegia argitaratzea espero duela gaineratu zuen Nogerazek. Antton Gurrutxagak, hiztegiaren zuzendari teknikoetako batek, hiztegiaren xehetasun teknikoak azaldu ditu, eta, besteak beste, esan du Elhuyar Hiztegia egiterakoan bi noranzkoak hartu direla kontuan, hau da, bi hizkuntzak (euskara eta gaztelania) parez pare landu direla.

Bestalde, hiztegia eguneratzeko erabili diren iturriak eta irizpideak zein diren adierazi zuen: Elhuyarren hiztegituzako datu-basea, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua, Eusko Jaurlaritzaren Euskalterm



Elhuyar hiztegi berria. ARGAZKIA: D.N.

Terminologia Banku Publikoa, Orotariko Euskal Hiztegia, hiztegi-iturri klasikoak eta berriak, ikerlanak, erabiltzaileen oharrak, kritikak...

Azkenik, Lurdes Ansa Elhuyar Edizioetako arduradunak hartu zuen hitza, eta hiztegiaren hiru for-

matuei buruz hitz egin du: liburua, CD-ROMa eta Interneteko bertsioa. Datu esanguratsu gisa azpimarra daiteke, gaur egun, Elhuyar Hiztegiak sarean hileko 300.000 bisita dituela batez beste.

**HAMAR URTEKO IBILBIDEA** Elhuyar Hiztegi berriak 88.000 sarrera, 20.000 azpisarrera, 150.000 adiera eta 100.000 adibide biltzen ditu, eta hiru ataletan banatuta dago: euskara-gaztelania, gaztelania-euskara eta gramatika-eranskina. Duela hamar urte argitaratu zuen Elhuyarrek Hiztegiaren lehen edizioa, eta, harrezkerotik, oso kontuan hartu ditu euskal hiztegituzan egin diren urratsak. 2000. urtean, Elhuyar Hiztegiaren 2. argitalpena kaleratu zuen, Euskaltzaindiak Hiztegi Batuaren lehen bertsioa amaitzearekin batera. Geroztik, Euskaltzaindia etengabe ari da Hiztegi Batua osatzen eta lan horren emaitzak aurka Interneten argitaratzen. Erabaki horiek ahalik eta zehatzena jasotzen ahalegindu dira 3. edizio honetan, eta, aldi berean, kontuan hartu dituzte beste informazio-iturri batzuk ere. >I.F.

## 'BLOG' BATEKO TESTUAK JASO DITU XABIER MENDIGURENEK

Interneten zintzilikatutako hainbat artikulu biltzen ditu 'Paperjalearen dieta'-k

DONOSTIA. Interneteko *blog* batean egunero-egunero artiku bat idazteko erronka hartu zuen orain dela bi urte Xabier Mendiguren Elizegik eta konpromiso horren fruitua izan zen *Egunen harian* lana. Aurten, berriz, liburu horren "bigarren eta azken" zatia prestatu du idazle beasaindarak. *Paperjalearen dieta* izenburupean, azkeneko urtean bere webgune pertsonalean idatzi dituen testu laburrak argitaratu ditu, Elea argitaletxearen eskutik.

Autoreak egindako aurkezpenean jakinarazi zuenez, azken liburua aurrekoaren "ildo beretik doa". "Zinema, literatura, politika, antzerkia eta beste gai askori buruz idatzi dut nire artikuluetan. Eguneroko bizitzan topatu ditudan gauza horiei tira eginez, idatziei ikuspegi polita, sakona edo kuriozosa ematen saiatu naiz urte honetan guztian", adierazi zuen Mendigurenek. Modu horretan, saiakeraren nahiz egunkarietako zutabegintzaren "ikutu" bat daukate argitaratutako testuek.

Kritikak ere bere tokia omen dauka *Paperjalearen dietan*. "Eguneroko lan horretan norbere izakera erakusten du batek, eta baliteke kritika azaltzea artikuluetan", azaldu zuen Mendigurenek. Dena den, "garrazkeriak" alde batera uzten saiatu omen da idazle beasaindarra. *Blog* batean jasotako testuak izanda, gainera, hizkuntza "argi eta zuzena" erabiltzen saiatu dela ere gogoratu zuen autoreak. Bere ustez, bestalde, "idatzi eta segituan argitaratzeak ere arreta berezia eskatzen du".

Elea argitaletzeko arduradun Iñaki Mendizabalek azpimarratu zuenez, aurkeztutako liburuak "batez ere euskal kulturaren inguruko zertzeladak" jasotzen ditu, tarteka "giro soziala eta politikoa" islatzeaz gain. Mendizabalek idazlearen "ausardia" azpimarratu zuen, egunero idazteko erabakia gogoan hartuta. "Erudizioa, intuizioa, kritika, umorea eta honestitatea nahasten dituzte artikuluek", gaineratu zuen. >I.I.

KRITIKA > LITERATURA

## Gure Pereira

### PEREIRAK DIOENEZ

Izenburua: Pereirak dioenez. Jatorrizko izenburua: Sostiene Pereira. Egilea: Antonio Tabucchi. Itzultzailea: Fernando Rey. Argitaratze urtea: 2006. Argitaletxea: Igela.

A. IRIZAR

**I**GELA argitaletxeak Literatura Sailean argitaratu berri duen *Pereirak dioenez* hartuko dugu gaurkoan hizpide, Antonio Tabucchi idazle italiar prestigiotsuaren nobelarik ezagunena eta arrakastatsuenena. Zinemaren ere izan zuen isla arrakasta horrek; liburua argitaratu eta hurrengo urtean, 1995ean, izenburu bereko filma egin zuen Roberto Faenza zuzendariak, Marcello Mastroianni protagonista aktore italia-

rraren azken filmetako bat izan zen. Kontakizuna Lisboan dago girotua. Tabucchi, izan ere, lotura estua du Portugalekin, Parisen ikasle zela Fernando Pessoa idazle portugaldarrenganako miresmena piztu zitzaionetik. Maria José Lancastre emaztearekin batera, Pessoaen lan asko itzuli ditu italiarera, eta entsegu liburu bat eta antzezlan bat ere idatzi ditu poeta portugaldarrari buruz.

Genioen moduan, bada, liburua Lisboan girotua dago. 1938ko uda dugu, Salazarren diktadura Portugalen; Espainian, berriz, gerra zibila, eta faxismo-hotsak gero eta ozenagoak Europan. Pereira dugu protagonista, Lisboa egunkariko orrialde kulturaz arduratzen den kazetari zaharra. Alargundua, nekatua, errealitate ilunari ez ikusiarena egiten saiatzen da

gure gizona, eta iraganeko oroitzapenetan bilatzen du babesa, bere emazte hilaren erretratua bidez.

Hein handi batean Pereiraren hausnarketek osatzen dute liburua, baina lehenbiziko pertsona emanak egon beharrean, beste norbaiti kontatu ondoren -"Testigantza bat" du liburua azpitu-tulua- beste horrek idatzi jarri izan balitu bezala daude emanak, liburu guztian zehar "Pereirak dioenez" formula erabiliz -"Sostiene Pereira", jatorrizkoan-. Protagonistaren bilakaera erakusten duten pentsakizun eta gogoeta horiekin batera, ugari dira nobelan zehar aipamen literario eta historikoak, baina, hala ere, liburuak badu halako arintasun eta soiltasun berezi bat. Esan dezagun, bide batez, euskarazko itzulpenak ondo gorde duela

ezagurri hori. Bestela bezala, ordea, gai sakon eta mamitsua jartzen du Tabucchi mahaian gainean, eta, ondorioz, galdera ugari ere bai: zer jokabide izan behar dugu inguratzen gaituen errealitatearekin?, zenbateraino egin dezakegu ez ikusiarena?, zer prezio du konpromisoak?...

Antonio Tabucchi euskaratzen zaion lehenbiziko liburua dugu hau. Luze gabe, hala ere, idazle italiararen beste bi lan helduko zaizkigu Literatura Unibertsala bilduman: *Donna di Porto Pim* (Porto Pimeko dama) eta *Piccoli equivoci senza importanza* (Garrantzirik gabeko oker tikiak). Lanok denak Fernando Reyk itzuli ditu; ez dugu ez langile makala itzultzaile iruindarra. Pereirak dioenez hau, Fernando Reyk berak liburuaren aurkezpe-

nean esan zuenez, ez du enkarguz itzuli, plazer hutsez baizik. Horrenbestez, aukera izan du, dioenez, epeen estutasunik gabe lan egiteko: nobelaren erritmoaz jabetu lehenbizi, itzulpena egin hurrengo, denbora batean egoten utzi, gaztelaniazko bertsioarekin konparatu... Azkenean, emaitza bikaina lortu du. Horren erakusgarri da, edo egindako lan zorrotzarena bai bederen, liburuan atzemandako "lagun faltasuei" buruz Sendez aldizkariaren 28. zenbakian argitaratutako artikulua (EIZIE euskal itzultzaileen elkartearen webgunean ikus daiteke), non elementu irristakor horien bilduma egiteaz gain, itzulpen-arietaren esperientziak ere badiharduen. Esandakoa: ez dugu kamutsa gure Fernando.